


LABURPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ekonomiak beheranzko joera areagotu zuen 2012ko laugarren hiruhilekoan, BPGaren urte arteko aldakuntza tasa $\%-1,7$ an kokatu arte, hots, aurreko balioa baino bi hamarren beherago. Jaitsiera erritmoak izan duen galgak iradokitzen du ekonomiaren oraingo zikloaren puntu baxuena hurbil egon daitekeela, bereziki kontuan hartzen badugu hirugarren hiruhilekoko datua BEZaren igoera saihesteko erosketa batzuk aurreratu izanak baldintzatu zuela eta horrek laugarren hiruhilekoan kalte egin ziola kontsumo pribatuaren hazkunderari. Beste hiruhileko batez, barne eskariak muturreko ahultasuna erakutsi zuen, atal guztiak behera joan zirela. Aitzitik, kanpo arloak beste ekarpen positibo bat egin zion BPGaren gehikuntzari, inportazioen murrizketa garrantzitsuari esker, esportazioek ez baitzuten inolako suspertzerik lortu.

EAEko ekonomia. BPGaren bilakaera.

Urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak. Urte arteko aldakuntza tasak.



Iturria: Eustat.

EAEko esportazioen erritmorik ezaren oinarrian, testuinguruaren ahultasuna dago, bereziki EAEko enpresen ohiko merkatuetan bizi den bizitasun falta. Oro har, munduko ekonomia hirugarren hiruhilekoan beste hazi zen laugarrenean, Txinak lortu zuen bultzadari esker, bertako hazkunde erritmoa, urte arteko tasan, $\%7,9$ ra bizkortu zuelako, herrialde horretako

gobernuak iazko lehen erdian abiarazi zituen neurriek munduko bigarren potentzia suspertzea lortu zutela agerian utziz. Garapen bidean dauden beste herrialde batzuek ere, hala nola Indiak eta Brasilek, puntu erdi bat inguru hobetu zuten urte arteko aldakuntza tasa aurreko datuaren aldean.

Txanponaren ifrentzuan herrialde garatuak daude. Alde batetik, AEBek puntu oso bat moteldu zuen bere hazkunde erritmoa, %1,6 arte, eta moteltze horren arrazoiak iragankorrak diren arren eta bertako kontsumo eta inbertsio pribatuek sendotasuneko zantzuak erakusten badute ere, herrialde horretako bi alderdi nagusien artean eremu fiskalean adostasunik ez egoteak kezka handia eragin du, ekonomiaren susperraldia galgatu dezakeelako. Beste aldetik, Japoniak geldotasunetik asko duen irudia eskaini zuen, urte arteko tasa %0,3 baino ez baitzen hazi, urteko lehen erdian erritmo bizia lortu ondoren.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2011		2012		
			IV	I	II	III	IV
Europar Batasuna 27	1,5	-0,3	0,8	0,1	-0,3	-0,4	-0,6
- EAE	0,5	-1,2	0,2	-0,4	-1,0	-1,5	-1,7
- Espainia	0,4	-1,4	0,0	-0,7	-1,4	-1,6	-1,9
- Alemania	3,0	0,7	1,9	1,2	1,0	0,9	0,4
- Frantzia	1,7	0,0	1,1	0,2	0,1	0,0	-0,3
- Italia	0,4	-2,4	-0,5	-1,6	-2,6	-2,6	-2,8
- Erresuma Batua	0,9	0,2	0,9	0,3	-0,2	0,2	0,3
Amerikako Estatu Batuak (AEI)	1,8	2,2	2,0	2,4	2,1	2,6	1,6
Japonia	-0,6	2,0	-0,1	3,3	4,0	0,4	0,3
Txina	9,3	7,8	9,1	8,1	7,6	7,4	7,9
India	7,9	4,5	5,6	4,7	4,0	3,4	3,9
Errusia	4,3	3,6	4,9	4,5	4,2	3,4	---
Brasil	2,7	1,0	1,4	0,7	0,4	0,9	1,4


Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Hala eta guztiz ere, bilakaera negatiboena Europar Batasunarena izan zen, dagoeneko hiru hiruhileko kateatu baititu jaisten, 2012ko azken laurdenean %-0,6ko balioa jaso arte. Euroguneko lau herrialde nagusietatik, Alemaniak bakarrik areagotu zuen bere BPGa, nahiz eta tasa txiki batean (%0,4) izan zen. Aitzitik, hala Italiak nola Espainiak eta Frantziak urte

arteko tasa negatiboak jaso zituzten laugarren hiruhilekoan. Hiruhileko arteko tasan, aipatu diren lau ekonomia horiek eta Erresuma Batua jaitsi egin ziren.

Munduko ekonomia. BPGaren bilakaera.
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostaten eta ELGERen datuak erabilia.

Europako herrialdeen barne eskariak ahultasun handiko zantzuak eskaintzen ditu. Beraz, bultzada guztia kanpo arlotik iritsi zaie, euroak 2012ko zati handi batean bizi zuen balio galera lagunduta. Zor subiranoaren krisiak eta diru bakarraz agertu ziren zalantzek balioa kendu zioten Europako diruari. Hala ere, finantza merkatuak baretu diren heinean, euroak

indarra berreskuratu du 1,30 dolarren truke iritsi arte. Goranzko joera horrek jarraitzekotan, europar herrialdeen atzeraldia luza daiteke.

Munduko ekonomiak izan duen bizitasun falta nazioarteko merkataritzaren bilakaeran islatu da, bilakaera lauari eutsi diolako, 2010ean eta 2011n lortu zituen gorakada handietatik oraindik oso urrun. Hain zuzen ere, Munduko Merkataritza Antolakundeak hilabeteen behin argitaratzen dituen datuek seinaltzen dute urte arteko gehikuntza tasa %0,1 bakarrik izan zela 2012ko laugarren hiruhilekoan. Balio hori txikia bada ere, aurreko bi hiruhilekoetako jaitsierei amaiera jarri die. Beste aldetik, ahultasun horrek lehengaien salneurriak igotzea galarazten du, batez ere petrolio gordinarena, upelaren prezioa 85 euroen inguruan eta 120 dolarren azpitik egonkortu baita Beraz, azken urtebeteko epean %3aren inguru merkatu da. Horrek inflazioa kontrolatzen lagunduko du.

Petrolioaren prezioaren eta truke tasaren bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Espainiako eta Europako merkatuek erakusten duten ahultasuneko testuinguru horretan, EAEko ekonomiak, aurreko urteko epe beraren aldean, %-1,7ko aldakuntza tasa jaso zuen 2012ko laugarren hiruhilekoan, aurreko datua baino bi hamarren okerragoa baita. Hala ere, tasa hori Espainiak lortu duena (%-1,9) baino zertxobait hobea da, nahiz eta Europako batez bestea (%-0,6) baino nabarmen negatiboagoa den. Barne eskariaren osagaiek erakutsi duten bizitasun ezak EAEko barne produktu gordinaren narriadura azaltzen du. Izan ere, kontsumo pribatua %1,6 murriztu zen, aurreko hiruhilekoetan baino askoz gehiago. Tasa horren

oinarrian, neurri batean, hainbat erosketa hirugarren hiruilekora aurreratzeko erabakia dago, BEZaren iraileko igoera saihesteko. Halaber, enpleguaren galera gero eta handiagoa izateak eta higiezinaren balioa jaitsi izanak familien errenta erabilgarriak gutxitu dituzte.

Administrazio publikoek ere ezin diote inolako bultzadarik eman hazkunderari, defizit publikoa gutxitzeko hartu duten konpromisoagatik. Dena dela, laugarren hiruilekoan, kontsumo publikoa %1,6 bakarrik jaitsi zen, aurreko bi hiruilekoetan baino askoz gutxiago. Kapitaleko eraketa gordinak, berriz, pauso bat eman zuen atzera eta galera areagotu zuen %-5,5ean kokatu arte, hirugarren hiruilekoan bizi zuen itxurazko hobekuntza deuseztatuz. Hala ekipamenduko ondasunetan eginiko inbertsioak (%-5,8) nola gainontzeko inbertsioak (%-5,4) okertzeko joera erakutsi zuten, enpresetan dagoen ezkortasunarekin eta barneko zein kanpo eskari zorrotzaren bat datorrena.

Ekonomiaren arloen arabera, lehen sektoreak bakarrik areagotu zuen bere balio erantsi gordina laugarren hiruilekoan. Berrito ere, narriadura erritmo handiena eraikuntzan gauzatu zen (%-6,3), suspertzeko inolako zantzurik erakusten ez duelako. Manufakturen industriak urte arteko jaitsiera %-3,2ra arte bizkortu zuen, zerbitzuek beherakada areagotu zuten bitartean, aldakuntza tasa %-0,9an utzi arte. Eustatek orain eskaintzen duen banaketak aukera ematen du zailtasunak merkataritza, ostalaritza eta garraioan (%2,0), eta administrazio publikoa, hazkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuetan (%-1,9) kokatzeko. Aitzitik, gainontzeko zerbitzuek oraindik nolabaiteko bizitasuna (%0,3) erakusten dute.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2011	2012			
			IV	I	II	III	IV
BPG erreala	0,5	-1,2	0,2	-0,4	-1,0	-1,5	-1,7
BPG nominala	1,8	-0,1	1,2	0,6	0,3	-0,7	-0,5
BPGaren deflatoea	1,3	1,1	1,0	1,0	1,3	0,8	1,3
Enplegua	-0,9	-2,5	-1,5	-1,8	-2,3	-2,7	-3,1
Ekoizkortasun irabaziak	1,3	1,4	1,7	1,4	1,4	1,3	1,4
Langabezia tasa	10,8	12,1	11,2	12,1	11,9	11,8	12,8
Kontsumoko prezioen indizea	3,1	2,3	2,7	2,0	1,9	2,5	2,8

Iturria: Eustat eta INE (KPI).

Ekonomiaren narriadurak enplegu galera areagotu zuen eta urte arteko tasa (%-3,1) aurreko hiruhilekoetakoa baino handiagoa izan zen. Horren ondorioz, langabezia tasak iazko lehen hiruhilekoetan izan zuen beheranzko joera leuna bertan behera utzi zuen eta %12,8ra igo zen. Prezioei dagokionez, BPGaren deflatoreak moteltze nabarmena sinalatzen du eta %1,3 bakarrik igo zen. Kontsumoko prezioek, berriz, BEZaren iraileko igoeraren eragina nabaritu zuten eta urte arteko tasa %2,8ra igo zen. Hala ere, igoera hori iragankorra izango dela eta aurtengo irailetik aurrera inflazioa leunduko dela aurreikusten da.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak datozen hiruhilekoetarako egin duen aurreikuspenak susperraldi leuneko eszenategi bat marrazten du. Susperraldia aurtengo bigarren hiruhilekoan haziko da, BPGaren aldakuntza tasa %-1,6an kokatuko delako, hots, aurreko balioaren bi hamarren gaintetik. Hala ere, susperraldi hau, 2010ean bizi zena ez bezala, astiro gauzatuko da eta hiru hiruhileko gehiago beharko ditu balio positiboak lortu arte. Bilakaera horren oinarrian kanpo arloa dago eta urratsez urrats industriaren jarduera bultzatuko du, eskaintzaren ikuspegitik, eta baita kapital eraketa gordinarena eta esportazioak ere, eskariaren aldetik. Hortik abiatuta, hobekuntza gainontzeko sektoreetara hedatuko dela espero da.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENAK 2013RAKO ETA 2014KO 1. SEIHILEKORAKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013				2013	2014	
	I	II	III	IV		I	II
BPG erreala	-1,8	-1,6	-0,9	-0,4	-1,1	0,3	0,7
BPGren deflatoea	1,4	1,3	1,8	1,7	1,6	1,6	1,5
Enplegua	-3,0	-2,5	-2,0	-1,6	-2,2	-1,2	-0,9
Langabezia tasa	13,3	13,7	13,6	13,2	13,5	13,0	12,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Enpleguari dagokionez, 2013. urtean berriro behera egingo duela aurreikusten da, urteko batez bestean %2,2ko jaitsiera izan daitekeena. Tasa hori 2012koa baino zertxobait txikiagoa da, baina 19.000 lanpostu baino zertxobait gehiago galduko direla esan nahi du. Orobat, langabezia tasa %13,5era igoaraziko du urteko batez bestean, biztanleria aktiboaren bilakaeraren arabera. Prezioek ez dute presiorik egingo eskarian eta gorakada neurritsuak espero dira, deflatorearen terminoetan %1,6aren ingurukoak. Kontsumoko prezioek ere joera apala erakutsiko dute, aurtengo azken hilekoetan eta 2014 osoan %2ko langa gaintitu gabe.